

BEGIZKOAREN AURKAKO ERA ASKOTAKO OSAGAI ORGANIKO KUTUNAK EUSKAL HERRIAN

Anton Erkoreka

Medikuntza irakasle eta doktorea

Bizkaiko zenbait eskualdetan eta baita Euskal Herriko beste toki batzuetan ere oso zabalduta egon da *begizkoaren* aurkako *kutun*-en erabilpena. Hauetariko batzu telazko poltsa-tzoetan gordetako animali eta landare produktu nahastuz osatuak ziren. Zenbait osagai, adie-razgariak noski, berdinak dira kutunen ba-napen area guztietan, aldiz beste batzu tokian tokiko ditugu.

Kutunik gehienak bezala gaitz honen aurkako erabiliak ziren, batez ere haurtzaroan beronengandik gordetzeko, horixe baita giza-kion behar izen gehieneko garaia.

Gaiarekiko hurbilketa labur honetan etno-logo eta folkloristek bildutako zenbait datu az-tertuko ditugu. Mende hasieran bildutakoak ba-dira ere aurreko mendeetakoen ondorio eta zenbait kasutan antzinatasun handikoak. Biga-rren urratsean osagarrien azalezko azterketa egingo dugu beren erabilpen arrazoiak barne-tzen saiatuz.

Garrantzitsu eta maizen erabilia umearen beraren zilbor-este zatia da, osagai bakartzat ere agertzen da zenbait lekutan (1):

El cordón umbilical envuelto en una tela se emplea en Ataun como amuleto eficaz contra el begizko en los recién nacidos. Lo mismo se observa en Guernica (Vizcaya), según el informe que cita Rafael Salinas en su folleto La Fascinación en España» (2).

Osagai bikoetara jo ezkerreko, ondoko datu hau dugu Bizkaiko Zeanurin (3): *Begizkoa kentzeko, umearen paxan oilokorotza ta surtako ikatza iminten dira.*

Zuberoako Liginagan ere bi landare ele-mentu erabiltzen ziren, mihilua (hinojo) eta

menda, nahasturik bertan *sogaixtu* deritzan gaixorik (begizkoa) gordetzen zituela umeak eta (4).

Bizkaiko Diman eta Gipuzkoako Arronan (5): *Yaio barriari ebagiten dakon zila, kutuna egiteko, asentzio-bedarrakaz nastu egiten da. Kutun au umeari begizkorik ez egiteko izaten da ta eskumako alderdian, sorbaldan, yosten dako. Samati dan-ola bere iminten dautse batzuk.*

Azkuek berak, beste lan batetan (6) hiru osagaitako kutuna aipatzen du nahiz eta tokia ez adierazi: *Bizkaiko beste uritxoren batean, zeñetan eztakit, au gaineratu zidaten: «kutun orretan iru gauza sartzen ebezan: ogi bedein -katua (iru zatitan elizatik ekarrikoa), ikatza ta oilo-korotza.*

Barandiaranek gauza bera aipatzen du jazo zuen tokiak aipatuz (7): *En Cortezubi, Forua y otros pueblos de Vizcaya el kutun contra el begizko se compone de pan bendito, estiercol de gallina y carbón: todo esto va encerrado en un saquito de tela de forma de corazón, circunstancia que al parecer se relaciona con la creencia que hay en muchas partes de que el mal de ojo parte el corazón de la criatura.*

Bizkaiko Lekeitio eta Gorozikan (8): *kutuna* *paparretik dingilizka* *nai yosita* erabiltzen da. *Kutun barruan ikatza, diru txiki bat, umearen zila (gordeta eukirioa) ta apioa* eukiten da.

Geroagoko lan batetan, egile berak (9), diosku Elorrion, Ermuan, Markinan, Ondar-ruan eta Gipuzkoako Amezketan *Kutun bat eskegiten eben umearen paparrean. Kutun onek ikatza, dirutxo bat, umearen zil-zati bat eta apioa eukazan barruan.*

-
- (1) BARANDIARAN, José Miguel de: *Obras completas*. - La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo 1972-83. Ikusi V. tomos 290-291 orrialdeak eta I. t. 60 or.
- (2) SALILLAS, Rafael: *La fascinación en España. Brujas, brujerías, amuletos*. - Madrile, 1905.
- (3) AZKUE, Resurrección María de: *Euskalerrian yakintza/Literatura popular del País Vasco*. - Espasa-Calpe. Madrile, 1959-71. 4 tomo. Ilusi 1. t. 123 or.
- (4) BARANDIARAN *Op. cit.* IV. t. 231 or.
- (5) AZKUE *Op. cit.* I. t. 347 or.
- (6) AZKUE R. M.: «Euskalerriko oitura ta sineskeritxo bat edo beste». *Quinto Congreso de Estudios Vascos* {Vergara, 1930}. - Donostia, 1934.-92-100 or. ikusi 94 or.
- (7) BARANDIARAN *Op. cit.* V. t. 292 or. baita I. t. 61 or.
- (8) AZKUE *Op. cit.* 94 or.
- (9) AZKUE: *Euskalerrian yakintza/Literatura popular del País Vasco*. - *Op. cit.* I. t. 123 or.

Bizkaiko Garai eta Ibarrurin eta Gipuzkoa-ko Arrasaten (10) Kutun onetan gauza asko sartzen dabez gurasoak: ikatz-zatitxoak, anilla, jaboe zati bat, ur bedeinkatu tantak, papertxo idatzi bat tolosturik eta seinari berari yaioeran ebagiriko zilaren puska bat. Lekeitio lauma -raiko dirutxo bat sartzen eutsen.

Euskal Herrian deskribatuetakoetatik kutunik konplexuena Barandiaranek argitaratzen du (11): *En Cegama (Guipúzcoa), el kutun preservativo del begizko se compone de laurel, ajenjo, oliva, romero, ruda, carbón, ceniza y apio. Al de los recién nacidos se añade además el cordón umbilical.*

Ikusten denez, anizkun deitzen ditugun kutunok era askotako osagaiz eginak dira, osa-

gaiok elementu organikoak direlarik. Nahasteak egiterakoan badirudi bakoitzetik zenbat ipini esaten digun erau zehatzik ez dagoela. Toki bakoitzean eta seguraski kasu bakoitzean bai amak, bai honetaz gehien ulertzen zuen senideak bere usteko kantitateak ipintzen zituen.

Aztertutako tokien arabera, batez ere, Bizkaia erdi-ekialdekoan eta Gipuzkoako zenbait puntutan agertzen zaizkigu maizen kutun hauek.

Gehien eta gehienetan erabilitako elementua umearen beraren zila, edo zilbor-este, zatia dugu eta ondoren apioa eta dirua. Su zaborrak, beste zenbait landare, abereen gorotza c.a. gutxiagotan erabiliak dira.

ESKEMAK

	Zila zatia	Oilogorotza	Suaren hondarrak:		Dirua
			hautsa	ikatz	
BIZKAIA					
<i>Forua</i>	×	×			
<i>Gernika</i>	×				
<i>Kortezubi</i>	×	×			
<i>Goroizika</i>	×				×
<i>Zeanuri</i>		×		×	
<i>Dima</i>	×				
<i>Ibarruri</i>	×			×	
<i>Garai</i>	×			×	
<i>Elorrio</i>	×				×
<i>Ermua</i>	×				×
<i>Markina</i>	×				×
<i>Lekeitio</i>	×				×
<i>Lekeitio</i>	×			×	×
<i>Ondarroa</i>	×				×
GIPUZKOA					
<i>Arrasate</i>	×				
<i>Arroña (Zestoa)</i>	×				
<i>Amezketu</i>	×				
<i>Zegama</i>	×		×	×	
ZUBEROA					
<i>Liginaga</i>					

(10) Ibid. I.t. 448 or.

(11) BARANDIARAN *Op. tic.* V.t. 291 or. eta It. 60 or.

	Begetalak						Elementu erlijiosak			Beste batzu:	
	Apioa Erruda	Asentsi obelar Mihilua Menda	Erronero Ereinotza Olibu				ogi bedeinkatua	Ur bedein katua	papela idatzita	Anila	Xaboia
BIZKAIA											
<i>Forua</i>								X			
<i>Gernika</i>											
<i>Kortezubi</i>								X			
<i>Gorozika</i>	X										
<i>Zeanuri</i>											
<i>Dima</i>		X									
<i>Ibarruri</i>							X		X	X	X
<i>Garai</i>							X		X	X	X
<i>Elorrio</i>	X										
<i>Ermua</i>	X										
<i>Markina</i>	X										
<i>Lekeitio</i>	X										
<i>Lekeitio</i>									X	X	X
<i>Ondarroa</i>	X										
GIPUZKOA											
<i>Arrasate</i>							X		X		
<i>Arrona (Zestoa)</i>		X									
<i>Amezketza</i>	X										
<i>Zegama</i>	XX	X		XXX							
ZUBEROA											
<i>Liginaga</i>		XX									

Uste dugu substantzion azterketa nahiko zaila dela. Kutunaren zeregina ustezko gaitza desbideratu edo deusezte da. Gehienetan gaitz hau beste pertsona batengandik etorriko da eta ume edo emakumeengana zuzendua, babesgabekoenak direla eta.

Zila zatiaren erabilpena amarekiko loturaren sinbolo bezala uler daiteke, honek umeari sabel barruan zegoenean baino babes berdina

ematen diola eta. Zilbor-estearen babeserako erabiltzea edota umearen etorkizunaz lotzea oso zabaldua egon da mundu osoan, beraz logikoa da gure artean ere horrela izatea.

Elementu begetalak, apioa eta errudak batez ere tradizio handia dute kanpoko gatzetatik babesteko Euskal Herrian. Herritarentzat beldurgarri ziren numen edo mitologiako pertsonaien aurka ere erabil zitekeen. Han honela,

bildua dugu beste lan batetan (12) apioa, erruda eta zenbait elemento begetal ere laminaren aurkarako eskutu babesle bikaintzat jotzen zirela Bizkaian eta Gipuzkoan.

Kasu honetan elementu erlijiosoak bigarren mailakoak dira, besteen lagungarri arruntak. Jakina denez *Ebanjelioak* paparretik eskegita eta poltsa batetan sartutako liburu sakratuetan idatzitako zatitxo bat, bai mundu kristauan, baita gure herrian ere kutunik zabalduena izan da. Erlijio kutsua daukaten beste bazterreko elementuekin batera, hau da, ogia eta ur bedeinkatua, herriaren ustez ere aintzinako eta pagano antza daukaten gainerantzeko nahasteak kristautzeko eta indartzeko erabilia izan da.

Suaren hondarrak, bai hautsa, bai ikatza, etxearekiko eta etxe-bizitzarekiko lokarriak besterik ez dira, hor umeak begizkoa hartzeko arriskurik ez duela izango eta.

Oilogorotza, bere zikinkeriarekin zer ikusia daukala uste dugu. Oraintsu arte gure area geografiko hainbat tokitan, Ipar Afrikan esate baterako, lohia edo zikina begizkoaren kontrako eraginik gogorrenetarikoa zuenekoatzat jo zitekeen. Alde honetako umeak, ahalik eta zikin eta naskagarrien egoten saiatzen ziren, inork ez begiratzeko moduan edo begiratzekoan mirespenik gabe.

Dirua edo txanpona erabilia izan da magia sinpatikoan, grabatuta daraman gizakierengan proiektatzeko gaitz guztiak, bai gaixotasunak baita sorginkeriak ere.

Azkenengoz, anila eta xaboia, garbiketarako erabiliak, haurren osasun gordailuntzat nahaste magikoetan sartzen diren osagaiak dira.

(12) ERKOREKA, Anton: «Laminak (recopilación de leyendas) I y II». *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* X (Iruñea, 1978) eta XI (Iruñea, 1979) .- 451-491 eta 65-124 or. Ikusi 458-460 or. eta 66 or.